



José Miguel de **Barandiaran**  
Fundazioa ■ Fundación

Pedro Asua, 2-2 (60.bulegoa) 01008 Vitoria-Gasteiz Tel: 945 14 30 66  
email: [gasteiz@barandiaranfundazioa.eus](mailto:gasteiz@barandiaranfundazioa.eus) [www.barandiaranfundazioa.eus](http://www.barandiaranfundazioa.eus)

## **Jose Miguel de Barandiaran Ikerketa Beka 2017**

Eusko Ikaskuntzak, On Jose Migel de Barandiarani 1979. urtean egin zitzaion omenaldia zela eta, urteroko Ikerketa Beka sortzea erabaki zuen, omenaldia bera Barandiaranen ikerkuntza lanaren jarraipenean islada zedin.

Gaur egun Beka honela izendatzen da: **"Barandiaran Fundazioa: Jose Miguel de Barandiaran ikerketa beka"**.

**Euskal Herriko arkeologia eta etnologia** dira bekaren ikerketa gaiak, txandakako ordenan, diziplina horietaz arduratu baitzen gehienbat On Jose Migel Barandiaran.

### **Gaia**

Aurtengo deialdiak **Arkeologia** gaiak lantzea du helburu nagusi. On Jose Miguel Barandiaranek urte asko eman zituen zientzietako diziplina hau lantzen, eta haren itzala oso luzea da Euskal Herriko indusketa arkeologikoen munduan.

Hori dela eta, aurtengo deialdiak helburu garbi bat izango du: **On Jose Miguel Barandiaranek abian jarri zituen ikerketa lanak egun nola dauden aztertzea**, bitarte honetan egin diren indusketen eman dituzten fruituak ikertzea. Hala, ikerketa horiek urte hauetan izan duten bilakaera gertutik ezagutzeko aukera izango da, hau da, garai batekoa eta oraingoa aurrez aurre jarriko dira. Horretarako, Fundazioak utziko du bekaren irabazlea ateratzen den lantaldearen eskutan, bekarako aukeratutako aztarnategi "historiko"-ari buruz On Jose Miguelek sortutako material original guztia, bai landa lanetakoak, baita pertsonalak ere. Aztarnategiak, batzuk aipatzearen, Santimamiñe, Lezetxiki, Urtiagaren gisakoak dira.

Helburua izango da digitalizatutako informazio horren guztiaren azterketa kritikoa, Fundazioak oraindik argitaratu gabe dituen datuak publiko orokorrari nahiz egungo arkeologoei itzultzeko. Azken emaitza izango da testu idatzia, non kontestualizatuko diren aztarnategi horretan egindako aurkikuntzak ebakidura estratigrafikoekin, argazkiekin, oinplanoekin eta indusketa bukatu ondoren, lekuaren inguruan eginiko gainerako ekarpen eta analisiekin.

Jatorrizko irudi eta testuetara jotzeko, Fundazioaren web orrialdean esteka batzuk ipintzea ere aurreikusia dago. Barandiaranek burututako egunerokotasuna sendotuta geldituko da horrela, eta bere lanetatik oraindik erauzi daitekeen informazio guztia gizarteratuko da, XXI. mendeko formatu batean, Oroimen Digitalaren era batez, hain zuzen ere.



Soilik argitaratu gabeko lanak eta izaera propioa dutenak finantzatu ahal izango dira, eta ez neurri handiagoko beste proiekturen baten zati direnak, ezta bstelako finantziatorik dutenak ere.

Epaimahaiak Beka hau esleitu gabe utz dezake, baldin eta epaimahai horren irizpidearen arabera aurkezturiko proiektuek ez badituzte behar adinako baldintzak eta bermeak eskaintzen.

### Hautagaiak

Beka honetara bai norbanakoak, bai hartarako eraturiko lantaldeak ere aurkeztu ahal izango dira. Bigarrenen kasuan, proiektuaren arduradun-zuzendari batek ordezkatzeko du lantaldea.

Beka honetara Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo bizi diren eta euskal kulturaren alor horietan lanean ari diren pertsonak aurkeztu ahal izango dituzte euren lanak.

Bekaren emate-baldintzak ez betetzeak edo aurreko deialdiren bati dagokion lana amaiturik entregatu ez izanak eskabide horien arduraduna desgaitzen du hurrengo beketan aurkezteko, egoera argitu bitartean.

### Iraupena

Beka honek urtebeteko iraupena izango du eta ez du luzapenik izango.

### Zuzkidura

Bekaren zuzkidura 10.000 eurotakoa izango da.

### Sortzapenak

- 2018ko urtarrilaren 15ean: % 25.
- 2018ko uztailaren 15ean, lehenengo txostena entregatzerakoan, % 25.
- 2018ko abenduaren 15ean (behin azken txosten eta lan osoa entregatu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren): % 50.

### Dokumentazioa

- Hautagaiak ondoren adierazten den dokumentazioa igorri behar dute Jose Miguel de Barandiaran Fundaziora:
- Hautagaiaren eskabidea eta lantaldea izanez gero, taldearen ordezkariarena.
- Hautagaiaren curriculum arautua eta lantaldea izanez gero, taldekide guztiona, egindako ikasketak, buruturiko jarduera profesionalak, egindako ikerlanak, lorturiko sariak, argitalpenak, etab. azalduko direlarik bertan.
- Eskabide indibiduala denez, eskatzaileak antzeko bekaren edo aginduriko lanen baten onuraz gozaten ari den agertarazi beharko du.
- **Txosten** zehatza egin beharreko lanari buruz, ondoko puntuok agertarazi beharko dituenak:
  - Lanaren interesgarritasuna



José Miguel de **Barandiaran**  
Fundazioa ■ Fundación

Pedro Asua, 2-2 (60.bulegoa) 01008 Vitoria-Gasteiz Tel: 945 14 30 66  
email: [gasteiz@barandiaranfundazioa.eus](mailto:gasteiz@barandiaranfundazioa.eus) [www.barandiaranfundazioa.eus](http://www.barandiaranfundazioa.eus)

- Lanaren zabalera
- Ikerketa epeak
- Erabili beharreko metodologia
- Lan guneak
- Eskumeneko baliabideak
- Gastuen aurrekontua

### **Dokumentazioa aurkezteko epeak**

Aurreko atalean aurreikusitako dokumentazio guztia, **2017ko urriaren 31** baino lehen, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren bulegoetara bidali behar da (Pedro Asua kalea 2-2 (60.bulegoa), 01008 Gasteiz) edo [gasteiz@barandiaranfundazioa.eus](mailto:gasteiz@barandiaranfundazioa.eus) helbidera dokumentu guztiak ongi sinatuta.

Egun berean Postetxean utzitako proiektuak onartuko dira, baldin eta proiektua posta ziurtatuz bidali dela mezu elektronikoz egiaztatzen bada, horretarako Postetxeko egiaztagiria erantsiz. Betebehar hori gabe, bidalketa ez da baliozkoa izango.

### **Bekadunen eginbeharrak**

Bekaren onarpena idatziz adieraztea, Beka ematen den egunetik 15 eguneko epean, gehienez **2017ko abenduraren 31rako**.

Lanaren garapenari buruzko txostenak bidaltzea, deialdiko egitarauaren arabera.

Lehenengo txostena 2018ko martxoaren 31n entregatu beharko du; bigarrena, 2018ko uztailaren 25ean; hirugarrena eta azkena, 2018ko azaroaren 31n.

Egindako lanei buruzko oharpen, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren esku izatea.

Aurreikusitako planari edo ikerketa lantaldearen osaketari dagozkien aldaketak jakinaraztea, halakoak ezin izango baitira egin Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren berariazko baimenik gabe.

Beka amaitzean, amaierako lana euskarri informatikoan eta paperean aurkeztu beharko da. Halaber, Euskarazko, Gaztelaniazko, Frantsesezko eta Ingelesezko laburpen bana eramango du amaierako lanak. Laburpen hori argitaratu ahal izango du Fundazioak, egoki irudituko litzaiokeen euskarrian.

### **Lanen jabetza**

Egileak lanen jabe intelektualak izango dira. Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak beretzat hartzen du ikerketak osorik edo zatika argitaratzeko eskubidearen lehentasuna, edozein euskarritan. Kasu horretan, bekadunak uko egiten dio egile-eskubideak kobratzeari.



José Miguel de **Barandiaran**  
Fundazioa ■ Fundación

Pedro Asua, 2-2 (60.bulegoa) 01008 Vitoria-Gasteiz Tel: 945 14 30 66  
email: [gasteiz@barandiaranfundazioa.eus](mailto:gasteiz@barandiaranfundazioa.eus) [www.barandiaranfundazioa.eus](http://www.barandiaranfundazioa.eus)

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak eskubide horren erabilera lanaren behin betiko jasotzetik urte beteko epean adierazi beharko du eta bi urteko epea izango du argitalpena burutzeko. Aldi hori iraganik, egileak lana bere kabuz argitaratzeko ahalmena izango du, beti ere harturiko Beka aipatu beharko duelarik.

Fundazioa argitaratutako material grafiko eta idatzien original edo kopia baten jabea izango da.

### **Epaimahaia**

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak epaimahaia hautatuko du, Beka honi dagokion diziplinako espezialistekin osotua.

Beka-ematearen emaitza dokumentazioak aurkezteko epetik hilabete eta erdira ezagutaraziko da, **2017ko abenduaren 15** izanik azken data.

Beka eskuratu ahal izateko eskabidea aurkeztean, pertsona edo talde eskatzaileak epaimahaiaren erabakia onartuko du.

### **Gorabeherak**

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak Beka bideratzerakoan gerta litezkeen gorabeherak ebatzi ahal izango ditu, ondoko errekurtsorik gabe, eta laguntza ondoriorik gabe utz dezake, onuradunak aurreko ataletan adierazitako betebeharrak betetzen ez baditu. Ildo beretik, baldintza horiek betetzen ez badira, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak ordainduriko diru kopuruaren itzulera erreklamatu ahal izango du.